

DARDARKA ZERUAK, KALEA, ESTATUAK
DARDARKA EPAILE LEGEDI ESTUAK
EMAKUMEAK GAUDE IA LEHERTZEAR
GARRASI BATEKIN, HEGAN IRTETZEAR.

ASTE BAKOITZEKO MINUTU BAKOITZA
HILDAKO AHIZPAREN MINAREN OROITZA
ALABA, EMAZTE, AMA NAHIZ NESKATO
EZ AHAZTU IZENAK...mesedez...IZAN ZIRELAKO.

GREBARA JOATEN DIREN KIDEENGATIK
ASKI DA ! OIHUKA PLANTATZEAGATIK,
DENONTZAT EREDU ZARETENENGATIK,
MUNDUA IRAULTZEN DUZUENENGATIK.

BELDURRAK UXATUZ, KANTUAN JO TA KE
BADA ZER ESKATU ALDARRIKATUA
SAMA URRATU ARTE: BIZIRIK TA ASKE!
BEHINGOZ JAUSI DADIN... PATRIARKATUA.

DENARI SU EMAN, APURTUZ ERAIKI
INORK BEGIAK ITXI EZKERO JAIKI
JADANIK EZIN GAITU INORK GELDITU
BAT IKUTUZ GERO, MILA IKUTZEN GAITU.

NI NAIZ ANE, JUDHIT, MARTA TA LEA
NI NAIZ INGRID, PAULA, MARIBI,
ANDREA, NI NAIZ JIPOITU ZENUEN EMAZTEA,
NI UMEZURTZ UTZI ZENUEN UMEA
TA AURRE EGINGO DIZUN EMAKUMEA.